

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektua burutzeko funtsezko jarduerak hauek dira: ekoizpena, arazoak konpontzea eta banaketa.

Ekoizpenaren lehenengo pausua diseinua izango da. Gure taldean, ingeniariak izango ditugu dronaren prototipoa eta planoak diseinatuko dituztenak. Gainera, haien eskuetan ere geratuko dira diseinu eta prototipoen berrikuntza guztiak. Bigarren pausua, berez ekoizpena izango da. Hau da, planoak muntatzea. Dronaren fabrikazioa egiteko enpresa teknologiko bat azpikontratatu dugu. Haiek dituzten makinak eta baliabideak (3D inprimagailuak, ordenagailuak...) erabiliko dituzte dronak muntatzeko. Horretaz gain ere, mantenimendua egingo dute oraindik saldu ez diren dronen kalitatea bermatzeko.

Geroago, arazoen konponketa dago. Hau, aurreko enpresa teknologikoa burutuko du baina dronak funtzionatzen dutela ziurtatzeko gure enpresako barne espezialistek dron guztiak frogatuko dituzte behin ekoizpena bukatuta, dena ondo dagoela bermatzeko. Dronaren funtzionamendua ona bada, hurrengo fasera abiatuko dira eta bestela gure tailerrera eramango ditugu arazoa konpontzeko.

Azkenik, banaketa burutuko dugu. Banaketa bi eratan egingo dugu, lehenengoa banaketa fisikoa izango da gure esku egongo dena. Dronak gure denda fisikoetan salduko ditugu. Bigarrena, banaketa online-a izango da beste enpresen esku utziko duguna. Garraio enpresa bat kontratatuko dugu esportazioak egiteko eta online dendetako biltegitik produktuak bidaltzeko.

Marketina zein enpresaren kudeaketa gure esku egongo da %100ean. Publizitate kanpainak egingo ditugu marketinean eta iragarkietan adituak diren langileen laguntzarekin, gure taldearen parte izango direnak. Kudeaketa eta antolaketa gu geuk egingo dugu enpresaren arlo guztiak kontrolatuz. Hau, teknologia berrien eta talde lanaren bidez lortuko dugu.

